

**AMOREBIETA-ETXANOKO AMETX  
ERAKUNDE AUTONOMOAREN  
2011ko DEIALDIA LEHIAKETA  
ARAUBIDEAREN ARABERA DIRU-  
LAGUNTZAK EMATEKO  
UDALERRIKO KOMERTZIOEN  
ERROTULUAK, IRUDI  
KORPORATIBOA ETA WEB GUNEAK  
EUSKARAZ JARTZEAGATIK .**

**CONVOCATORIA 2011 DE  
CONCESIÓN DE SUBVENCIONES  
MEDIANTE RÉGIMEN DE  
CONCURRENCIA COMPETITIVA DEL  
ÁREA DE EUSKARA DEL  
AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-  
ETXANO POR INSTALAR RÓTULOS,  
PÁGINAS WEB E IMÁGENES  
CORPORATIVAS EN EUSKERA EN  
EL ÁMBITO COMERCIAL DEL  
MUNICIPIO**

Azaroaren 15eko 230-11 zenbakidun Dekretuaren bidez, Amorebieta-Etxanoko Ametx Erakunde Autonomoak onartu egin zuen udalerriko komertzioen errotuluak, irudi korporatiboa eta web guneak euskaraz jartzeagatiko diru-laguntzen emakidarako 2011ko deialdia.

Mediante decreto de presidenta 230-11 del 15 de noviembre, el Organismo Autónomo Ametx de Amorebieta-Etxano aprobó la convocatoria de 2011 para la concesión de las subvenciones por instalar rótulos, páginas web e imágenes corporativas en euskera en el ámbito comercial del municipio.

**1. ARTIKULUA. Diru-laguntzaren helburua**

Amorebieta-Etxanoko komertzioei laguntzea errotulazioa, irudi korporatiboa eta web-guneak euskaraz jarriz gero.

**ARTÍCULO 1. Objeto de la subvención**

Ayudar en la financiación al sector comercio de Amorebieta-Etxano para instalar rótulos, páginas web e imágenes corporativas en euskera.

**2. ARTIKULUA. Onuradunak**

Euren establezimenduan errotuluak, irudi korporatiboa eta web-guneak euskaraz instalatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira onuradunak.

**ARTÍCULO 2. Beneficiarios/as**

Tendrá la consideración de beneficiario/a, toda persona física o jurídica en cuyo establecimiento instale rótulos, páginas web e imágenes corporativas en euskera.

Honakoak izan beharko dira:

1. Errotulazioa euskaraz jartzeagatiko diru-laguntzen subjektu onuradunak euren establezimendua Amorebieta-Etxanon kokatuta daukaten merkatariak eta ostalariak izango dira.

Deberán ser:

1. Beneficiarios/as de subvención por instalar rotulación en euskera: responsables de establecimientos comerciales y hosteleros con sede en Amorebieta-Etxano.

2. Irudi korporatiboa euskaraz jartzeagatiko diru-laguntzen subjektu onuradunak: euren establezimendua Amorebieta-Etxanon kokatuta daukaten merkatariak eta ostalariak izango dira.

2. Beneficiarios/as de subvención por instalar imagen corporativa en euskera: responsables de establecimientos comerciales y hosteleros con sede en Amorebieta-Etxano.

3. Euskarazko web orriak euskaraz jartzeagatiko diru-laguntzen subjektu onuradunak honakoak izango dira: euren establezimendua Amorebieta-Etxanon kokatuta daukaten merkatariak eta ostalariak.

Aurreko deialdian diru-laguntzak jaso zituzten Erakunde eta elkarteak ere aurkeztu ahal dira diru-laguntza deialdi honetara. Horretarako, aurreko diru-laguntza jaso zutenetik egindako berrikuntzen berri eman beharko dute.

### **3. ARTIKULUA. Diru-laguntza emateko prozedura**

#### **Eskabideak aurkeztea:**

Eskabidea, Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako AMETX Erakunde Autonomoaren presidenteari zuzenduta, Zelaieta Zentroko Sarrera-erregistroan aurkeztuko da, edo Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako bideetako edozein erabilita, 2011ko abenduaren 30eko eguerdiko 14:00ak baino lehen. Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntza-eskari normalizatua.
- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Erakundearen IFKren fotokopia, erakunde juridikoa izanez gero.
- Errotulazioaren testua eta argazkia, irudi korporatiboaren testua eta argazkia, edo web gunearen testua. Testuak zuzen idatzita egon beharko du. Interesdunak Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza teknikoa eskatu ahal izango du.
- Egindako gastuaren faktura orijinalak.
- Zerga-betebeharrei dagokienez eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dela egiaztatzen duen agiria, indarrean

3. Beneficiarios de subvención por las páginas web en euskera: responsables de establecimientos comerciales y hosteleros con sede en Amorebieta-Etxano.

Las entidades que percibieron subvención en el ejercicio precedente podrán optar a las subvenciones de esta convocatoria. Para ello, deberán aportar información de las innovaciones realizadas desde la concesión de la subvención anterior.

### **ARTÍCULO 3. Procedimiento para la concesión de la Subvención**

#### **Presentación de solicitudes:**

La solicitud, dirigida al Sr. Presidente de Ametx Zornotzako Kultura eta Euskara Zerbitzurako Herri Erakundea, se presentará en el Registro de entrada de Zelaieta Zentroa por cualquiera de los medios señalados en el artículo 38 de la LEY 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, antes del día 30 de diciembre de 2011, a las 14:00 horas, debiendo acompañarse los siguientes documentos:

- Solicitud de subvención normalizada.
- Fotocopia del DNI de el/la solicitante.
- Fotocopia del CIF de la entidad, en caso de tratarse de una entidad jurídica.
- Texto y fotografía de la rotulación, texto y fotografía de la imagen corporativa o texto de la página web. El texto deberá estar correctamente escrito. Para ello, el interesado/a podrá solicitar asistencia técnica del Servicio Municipal de Euskera.
- Facturas originales del gasto.
- Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad

dauden ebazpenek ezartzen dutenaren arabera.

b) Aldi berean beste edozein organismo publiko nahiz pribatutan helburu berbererako diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu bada, AMETX Erakunde Autonomoan aurkeztu den eskabideari erantsi beharko zaio hori azaltzen duen adierazpena. Bertan adierazi beharko da zein erakundetan aurkeztu den finantzatzeko eskabidea, zenbat diru eskatu den, edo kasuan kasu, zenbat jaso den.

c) Artikulu honetan zerrendatutako dokumentu eta datuez gain, AMETXek, kasu zehatz bakoitzari erreparatuz dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, baldin eta aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzat jotzen badu.

d) Eskatutako dokumentuak jada AMETXen esku badaude, eskatzaileak horiek ez aurkezteko eskubidea erabili ahal izango du, baldin eta aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo egin ziren jarri beharko da.

e) Eskabideak Oinarri hauetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez baditu, eskumena duen organoak interesdunari agindeia egingo dio, akatsa zuzen dezan. Horretarako, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezina izango du, eta adieraziko zaio hori egin ezean, eskaera bertan behera utzitzat hartuko dela, 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusita dagoenarekin bat etorrita, ebazpena eman ondoren.

f) Eskumena duen organoak diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa hainbanatuko du diru-laguntzen onuradunen artean

Social impuestas por las disposiciones vigentes.

b) En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención con la misma finalidad ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud ante el organismo autónomo AMETX deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con indicación de las instituciones ante las que se haya presentado solicitud de financiación y la cuantía solicitada, o en su caso, recibida.

c) Además de los documentos y datos relacionados en el presente artículo, AMETX podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.

d) En el supuesto de que los documentos exigidos ya estuvieran en poder de AMETX, el/la solicitante, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan, podrá hacer uso de su derecho a no presentarlo, haciendo constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentado o emitidos.

e) Si la solicitud no reúne todos los requisitos establecidos en estas Bases, el órgano competente requerirá al interesado/a para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días, indicándole que si no lo hiciese, se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley 30/1992.

f) El órgano competente procederá al prorrateo, entre los beneficiarios de la subvención, del importe global máximo destinado a las subvenciones

### **Prozedura izapidetzea:**

Instrukzio organoa Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako AMETX Erakunde Autonomoan dagokion arloaren zuzendaritza izango da.

Prozedura izapidetzeko jarduera hauek egingo dira:

— Ebazpena emateko beharrezkoak diren txostenak eskatu.

— Eskabideak ebaluatu, baloratzeko irizpide, modu eta lehenasunen arabera. Horiek guztiak oinarri hauetan daude zehaztuta.

Eskabideak ebaluatu ondoren, espedientea igorriko zaio eskabideoi buruzko txostenak egin behar dituen kide anitzeko organoari. Organo hori Dirulaguntzen Emakidako Batzordea deituko da, eta kide hauek izango dira partaide:

- Presidentea: Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako AMETX Erakunde Autonomoaren presidentea.
- 2 batzordekide: Saileko teknikaria eta Kontu-hartzailea edo berak eskuordetzen duen pertsona.
- Idazkaria: Saileko laguntzailea edo administraria.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organook behin-betiko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Interesdunek emandako gertakari, alegazio eta frogak baino ez dira kontuan hartuko.

Behin-betiko ebazpen-proposamenera hauexek bildu beharko dira:

- Diru-laguntza emateko proposatu diren eskutzaileen zerrenda.
- Diru-laguntzaren zenbateko zehatza.

### **Instrucción del procedimiento:**

El órgano instructor será la dirección del área correspondiente del organismo autónomo de Cultura y Euskera AMETX.

Las actividades de instrucción comprenderán las siguientes actividades:

— Petición de cuantos informes se estimen necesarios para resolver.

— Evaluación de las solicitudes o peticiones, efectuada conforme a los criterios, formas y prioridades de valoración, que se definen en estas bases.

Una vez evaluadas las solicitudes, se remitirá el expediente al órgano colegiado que emitirá Informes sobre las mismas. Dicho órgano, que se denominará Comisión de Concesión de Subvenciones, estará formado por los siguientes miembros:

- Presidente: presidente del Organismo Autónomo de Cultura y Euskera AMETX.
- 2 vocales: técnico/a del área e interventor/a o persona en quien delegue.
- Secretario/a: auxiliar o administrativo/a del área

A la vista del expediente y del informe del órgano colegiado el órgano instructor formulará la propuesta de resolución definitiva debidamente motivada. No se van a tener en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los interesados/as.

La propuesta de resolución definitiva deberá contener:

- La relación de solicitantes para los/las que se propone la concesión de la subvención.
- La cuantía específica de la subvención.

### **Ebazpena:**

Kultura eta Euskarako AMETX Erakunde Autonomoaren presidentek behin-betiko ebazpena emango du. Ebazpena arrazoitu egingo da eta, edonola ere, hartzen den ebazpenaren oinarriak ziurtatu beharko dira.

Diru-laguntza jasoko duen eskatzailea edo jasoko dutenen zerrenda azaldu beharko da ebazpenean, bai eta gainerako eskabideen gaitzespena ere. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunean zenbatzen hasita.

Diru-laguntza ematearen gaineko ebazpenaz batera amaituko da administrazio bidea.

Gehieneko epea ebazpena jakinarazi gabe amaitzen bada, emakidaren eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsi dela ulertu beharko dute interesdunek.

## **4. ARTIKULUA. Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak**

### 1. Kanpoko errotuluak:

- Errotuluak euskara hutsez jartzeagatik: zurutakoaren %50eko diru-laguntza emango da. Gehienez ere, 300 eurokoa izango da.
- Errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik, zurutakoaren %25eko diru-laguntza emango da. Gehienez ere, 200 eurokoa izango da.

### 2. Irudi korporatiboa:

- Irudi korporatiboa euskara hutsez jartzeagatik, zurutakoaren %50eko diru-laguntza emango da. Gehienez ere, 300 eurokoa izango da.
- Irudi korporatiboa euskaraz eta

### **Resolución:**

El presidente del organismo autónomo AMETX acordará la resolución definitiva. La resolución se motivará y, en todo caso, deberán quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte.

Deberá contener el/la solicitante o la relación de solicitantes a los que concede la subvención y la desestimación del resto de las solicitudes. El plazo máximo de resolución y notificación es de cuatro meses, contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo para presentar solicitudes.

La resolución de la concesión de la subvención pondrá fin a la vía administrativa.

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legítima a los interesados/as para entender desestimada la solicitud de la concesión por silencio administrativo.

## **ARTÍCULO 4. Criterios para la Asignación de Subvenciones**

### 1. Rotulación:

- Rotulación sólo en euskera: se subvencionará el 50% de lo justificado (cantidad máxima: 300 €).
- Rotulación en euskera y castellano: se subvencionará el 25% de lo justificado (cantidad máxima: 200 €).

### 2. Imagen corporativa:

- Imagen corporativa sólo en euskera: se subvencionará el 50% de lo justificado (cantidad máxima: 300 €).
- Imagen corporativa en euskera y



gaztelaniaz jartzeagatik, zurututakoaren %25eko diru-laguntza emango da. Gehienez ere, 200 eurokoa izango da.

### 3. Web guneak:

- Web gunea euskara hutsez jartzeagatik, zurututakoaren %50eko diru-laguntza emango da. Gehienez ere, 500 eurokoa izango da.
- Web gunea euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik, zurututakoaren %25eko diru-laguntza emango da. Gehienez ere, 200 eurokoa izango da.

Eskaera bakoitza osorik baloratuko du dagokion arloak edo sailak. Hark aholkua eskatu ahal izango die egokizat jotzen dituen pertsona edo erakundeei.

## 5. ARTIKULUA. Itzulketa

1.- Ondorengo kasuetan, eskatu egin ahal izango dira jasotako kopuruen itzulketa, eta diru-laguntza ordaintzeko egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak, diru-laguntzen gaineko Lege Orokorreko 38.2 artikuluan zehaztutako zenbatekoan:

a) Diru-laguntza lortzeko beharrezko baldintzak bete gabe diru-laguntza eskuratzen denean.

b) Beste Erakunde batzuen diru-laguntzekin batzean behar baino gehiagoko finantziarioa gertatuz gero, onuradunak itzuli egin beharko du AMETX Erakunde Autonomoak emandako zenbatekoa, finantzatutako kopuru osoaren gainean berak emandako kopuruaren arabera.

2.- Edonola ere, zati batean edo guztiz itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira proportzionaltasunaren eta

castellano: se subvencionará el 25% de lo justificado (cantidad máxima: 200 €).

### 3. Páginas Web:

- Páginas Web sólo en euskera: se subvencionará el 50% de lo justificado (cantidad máxima: 500 €).
- Páginas Web en euskera y castellano: se subvencionará el 25% de lo justificado (cantidad máxima: 200 €)

Cada una de las solicitudes será valorado, en su conjunto, por el área o departamento correspondiente, la cual podrá solicitar asesoramiento a aquellas personas o entidades que considere oportuno.

## ARTÍCULO 5. Reintegro

1.- Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, y en la cuantía fijada en el artículo 38.2 de la Ley General de Subvenciones, en los casos siguientes casos:

a) Haber obtenido la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.

b) La sobrefinanciación por concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras instituciones, públicas o privadas, en cuyo caso la beneficiaria tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por AMETX Erakunde Autonomoa en proporción al importe aportado por éste en relación con el total financiado.

2.- Para determinación de la cuantía a reintegrar, total o parcialmente, se atenderá en cualquier caso a los

berdintasunaren printzipioak. Horretarako, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak aztertuko dira.

3.- Itzulketa eskatzeko ebazpena diru-laguntza eman zuen organo berak emango du.

4.- Itzulketa-espeditenteak, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen VI. Tituluan ezarritako prozedurazko arauak bete beharko ditu. Espediente horren bidez interesdunari entzunaldi izapidea emango zaio 15 laguneko epean.

5.- Diru-laguntza itzuli beharra dagoela egiaztatu eta gero, eskumena duen organoak betebeharrak hori adierazteko ebazpena emango du. Ebazpen horretan arrazoiak eman beharko dira, eta berenberegi adierazi beharko da itzuli beharra sortu duen zioa, bai eta itzuli beharreko zenbatekoa, eta dirua borondatez sartzeko epea ere bai; halaber, aurreikusitako epean itzulketa egin ezean, premiamendu-bideari ekingo zaiola ohartaraziko da.

## 6. ARTIKULUA. Zenbatekoa

Eskatzaileen artean banatuko den gehienezko kopurua BI MILA (2.000) eurokoa da. Gastua Erakunde Autonomoaren aurrekontuko honako partida honen kargura egingo da: 4514 47100, kreditu erabilgarrien arabera.

principios de proporcionalidad y equidad, para lo cual se estará a las circunstancias de cada caso concreto.

3.- La resolución por la que se exija el reintegro se dictará por el mismo órgano que concedió la subvención.

4.- El expediente de reintegro se ajustará a las normas de procedimiento establecidas en el Título VI de la Ley 30/92 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en el mismo se dará trámite de audiencia al interesado/a por el plazo de 15 días hábiles.

5.- Verificada la obligación de devolución de subvención, el órgano competente dictará resolución declarando tal deber. Dicha resolución será motivada, con indicación expresa de la causa que origina el deber de reintegro, así como la cuantía que ha de devolverse y plazo voluntario de ingreso, con advertencia de que, caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá por la vía apremio.

## ARTICULO 6. Importe

Estas subvenciones se imputarán a los créditos presupuestarios disponibles de la partida 4514 47100 del Presupuesto del Organismo Autónomo, y la cuantía total máxima de las subvenciones convocadas es de DOS MIL (2.000) euros.

Amorebieta-Etxanon, 2011ko azaroaren 15ean

AMETX Erakunde Autonomoaren presidentea  
Andoni Agirrebeitia Abendibar

**Kanpoko errotuluak, irudi korporatiboa eta web guneak euskaraz jartzeagatiko dirulaguntza eskaria**

Solicitud de subvención para rótulos exteriores, imagen corporativa y páginas web en euskera

**Eskatzailea • Solicitante**

<b>Izen-deiturak • Nombres y apellidos</b>		<b>NAN-IFK • DNI-CIF</b>
<b>Helbidea • Dirección</b>	<b>Herria • Población</b>	<b>PK • CP</b>
<b>Tel. - Faxa</b>	<b>E-maila</b>	

**Komertzioaren izena • Nombre del establecimiento**

<b>Izena • Nombre</b>		<b>NAN-IFK • DNI-CIF</b>
<b>Helbidea • Dirección</b>	<b>Herria • Población</b>	<b>PK • CP</b>
<b>Tel. - Faxe</b>	<b>E-maila</b>	

**Banketxea (dirulaguntza sartzeko) • Entidad bancaria para ingreso de la subvención**

<b>Banketxea</b> Entidad bancaria	<b>Kontu korrontearen zk. • N° de cuenta (20 digitu)</b>
--------------------------------------	--

**Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- NANaren fotokopia.
- Erakundearen IFKren fotokopia
- Errotuluaren testua eta argazkia, edo irudi korporatiboaren testua eta alea, edo web gunearen testua.
- Gastuari dagokion faktura.
- Lurraldeko Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dela egiaztatzen duten agiriak.

**Documentación a presentar:**

- Fotocopia DNI solicitante.
- Fotocopia CIF de la entidad.
- Texto y fotografía del rótulo, o texto y ejemplar de imagen corporativa o texto de página web.
- Factura del gasto relativo al rótulo, imagen corporativa o página web.
- Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

**Amorebieta-Etxanon, 2011ko ..... aren .....(e)an**

**Izenpea • Firma**